

**Arantzazu**

***Bitoriano Gandiagaren Begitan***



**Arantzazuko Andre Mariaren  
irudi berria (1)**

## HUTSUNE NABARMEN BAT

geratu da frontoian,  
estali gabeko  
frontisa betean;  
eta hutsuneari  
darion isiltasun  
nabarmenago bat,  
mendietarainoko  
inguru guztian.

Ezin zitekeen  
hutsune hori baino  
ezer handiagorik  
kabitu harrian.  
Hutsune hori da  
Jurgi eskultore  
handiak utzi digun  
irudi handiena,  
eta nabarmenena.  
Euskaraz egun esan  
zitekeen hitzik  
handiena jarri du  
frontisean zutik.  
Euskaraz egun esan  
zitekeen hitzik  
ozenena jaso du  
mendiko frontoitik.

**A**rantzazuko Andre Mariaren irudi zaharra betikoa da, txikia, elizaren absidea-  
ren erdi-erdian dagoena: elorri gainean eserita dago, irribarretsu, altzoan bere Jesus Haurra duela. Andre Mariaren irudi berria Oteizak egin da, elizaren fatxadaren goi-goian ipinia: zutik dago, erdi belauniko, bere Seme hila, lurrean luze, bere oinen babesean babesten duela.

Arantzazuko Andre Maria bat bera da, irudi bitan: biak harrizkoak. Eliza barrukoak

Arantzazuko sukaldea bete eta berotzen du –“amaren etxe nasaiko sukalde handi modura” irudikatzen du Gandiagak Arantzazuko eliza–, erromes eta otoizlariei abegi gozo eta irribarretsua egiteko.

Arantzazuko fatxadako Andre Mariaren irudia, berriz, euskal pilotaleku mendikoaren frontisaren goian ikusten du poetak, zutik jarria, euskaldun guztientzako mezu eta ahots –“euskaraz egun esan daitekeen hitzik ozenena”–, hormaren hutsune isilean.